

LAPUR-ZULOA

Den of thieves

STEPHEN ADLY GUIRGIS

Euskaratzea: Julia Marin

2007-04-03

Taldea: Kanpingags

Zuzendaria: Carlos Zabala

Zuzendari-laguntzailea: Julia Marin

Aktoreak:

- Big Tuna: Kontxu Odriozola
- Little Tuna: Asier Sota
- Maggie: Itziar Ituño
- Boochie: Ainhoa Aierbe / Ainhoa Garai
- Sal: Kandido Uranga
- Paul: Asier Hormaza
- Flaco: Joseba Apaolaza

LEHEN EKITALDIA

Maggieren apartamentua. Maggie negarrez ari da. Paul kontsolatzen saiatzen da.

MAGGIE: Hain tuntuna sentitzen naiz.

PAUL: Lasai.

MAGGIE: Tontakeria handia da.

PAUL: Ze izango da tontakeria!

MAGGIE: Sentitzen dut, Paul. Ez dut uste egiterik izango dudarik.

PAUL: Maggie, entzun. Ni izana naiz zu orain zauden egoeran, eta gogorra da! Oso gogorra da laguntza eskatzea! Eta are gogorragoa onartzea.

MAGGIE: Paul...

PAUL: Baina zu ausarta zara... Ez begiratu horrela! Ausarta zara. Utzidazu galdera bat egiten. Hau izan da zure lehen lapurreta programan hasi zinenetik, ezta?

MAGGIE: Bai.

PAUL: Geroztik ez duzu ezer lapurtu?

MAGGIE: Ez. Programan hasi nintzenetik, ez.

PAUL: Eta noiztik zabilta programan?

MAGGIE: Bi igandetik hona.

PAUL: Eta gaur lapurreta egin duzu berriro...

MAGGIE: Bai. Gaur lapurreta egin dut berriro!

PAUL: Eta gero etxera joan zara zuzenean, eta programakide bati deitu diozu laguntza eskatzeko!

MAGGIE: Bai, baina zuk zenbakia utzi didazulako erantzungailuan.

PAUL: Bai, baina zuk erabili egin duzu!

MAGGIE: Bai, baina...

PAUL: Lehen erorikoa, eta laguntza eskatu duzu!

MAGGIE: Bai, baina...

PAUL: Baina ezer ez. Begira: nik 682 egun daramatzat ezer lapurtu gabe, baina dozena bat lapurreta eginda nengoen laguntza eskatzeko indarra hartu nuenerako. Eta zuk lehen aldian eskatu duzu!

MAGGIE: 682 egun daramatzazu lapurretarik egin gabe?

PAUL: Aja!

MAGGIE: Zer sentitzen da?

PAUL: Apurka-apurka joan behar da, Maggie.

MAGGIE: Beldur naiz, Paul. Ezin dut ia hitz egin, korapiloa daukat eztarrian.

PAUL: Nik ere izan nuen korapiloa eztarrian nire lehen aldian.

MAGGIE: Bai?

PAUL: NETRIMESak jota ibili nintzen.

MAGGIE: Nola?

PAUL: NETRIMES: Nerbioek Eragindako Tripetako Mugimendu Espontaneoaren Sindromea.

MAGGIE: Zer?

PAUL: Kristoren kakajariora izan nuen.

MAGGIE: A.

PAUL: Nik egunero-egunero eskertzen diot Jainkoari NETRIMES atake batekin bedeinkatu izana. (*Maggie: nazka*) Lasai, garbitu ditut eskuak. Beldurra ematen zidan laguntza eskatzeak, ezin nuen. Orduan, Berak egin zuen nire ordeztatik nik egiterik ez nuena. "Barrua libratzera" behartu ninduen. Jainkoak plan bat dauka gutako bakoitzarentzat, Maggie. Nirea kaka egitea zen nire praktikan kutunenetan. (*Maggie: nazka*) Lasai, aldatu ditut praktikak. Eta zurea hemen egotea da, nirekin; beraz... Egiaren unea iritsi da. Prest zaude?

MAGGIE: Hala uste dut.

PAUL: Ederki... Non dago?

MAGGIE: Zer?

PAUL: Lapurtutakoa. Non dago?

MAGGIE: Hor, poltsan.

PAUL: Oso ondo, zer lapurtu duzu, Maggie? (*Paulek poltsa zabaldu eta Toblerone bat ateratzen du*) Toblerone bat. (*Hortzetako pasta ateratzen du*) Eta hortzetako pasta. Bale, Toblerone bat eta hortzetako pasta lapurtu dituzu. (*Poltsa husten du.*) Eta gazta

parmeseana, pesto saltsa, desodorantea, erretzeko alkohola... Bi tomate, Raff... ustelduta.

MAGGIE: Zortzi t´erdian kiloa! Hori bai dela lapurreta!

PAUL: Lapur bati lapurtzen badiozu, ehun urteko barkamena dagokizu.

MAGGIE: Benetan?

PAUL: Ez. Hau al da dena?

MAGGIE: Bai.

PAUL: (*Begiradarekin: Gezurra*)

MAGGIE: Ai ama, mesedez.

PAUL: Lasai, ez da ezer gertatzen.

MAGGIE: Boligrafo hau lapurtu diot gurpil-aulkian zegoen atsoari, ondoan neukan gaurko batzarrean.

PAUL: Intsulina? Intsulina lapurtu diozu Martin andreari?

MAGGIE: Ez dakit zer gertatu zaidan. Hain da maitagarria. Eta hala ere, lapurreta egin diot amonaxo maitagarri horri.

PAUL: Amonaxo maitagarri horrek hamabi urte eman zituen kartzelan armazko lapurreta egiteagatik.

MAGGIE: Benetan?

PAUL: Duela sei hilabete eman zioten baldintzapeko askatasuna.

MAGGIE: Ez dakit nola esango diodan.

PAUL: Ez duzu esan beharrik. Bi ordu daramatza zerraldo.

MAGGIE: Ez!... Intsulinarik ez zeukalako!

PAUL: Ez; frenorik gabe geratu delako.

MAGGIE: Eskerrak Jainkoari!! Zigarro bat emango?

PAUL: 351 egun daramatzat erre gabe.

MAGGIE: Paul...

PAUL: Bai.

MAGGIE: Tori.

PAUL: Baina hau...! Kartera lapurtu didazu?

MAGGIE: Asko sentitzen dut.

PAUL: Nola kendu didazu?

MAGGIE: Gogoratzen zara, lehen, igogailuan...? Gogoratzen zara nola ukitu zaitudan?

PAUL: Bai, eskua sartu didazunean.

MAGGIE: Eskua sartu bai, baina zure poltsikoan.

PAUL: Joder! Baldartzen hasita nago.

MAGGIE: Bai zera! Izugarri ona naiz-eta. (*Abaildurik*)

MAGGIE: Dry Martini bat?

PAUL: Ez dut alkoholik edaten.

MAGGIE: Kafea?

PAUL: Ez dut kafeinarik hartzen.

MAGGIE: Papaia-ura?

PAUL: Bale.

MAGGIE: Ez daukat.

PAUL: Bueno, ba ezer ez. Zure ustez, kartera lapurtu didazunean, beharbada, subkontzientean, nire arreta zureganatu nahi zenuen? Ze, ikus dezagun, gaurko batzarrean, niri begira egon zara adi-adi.

MAGGIE: Bai, adi-adi begira, baina eskuan zenuen diruari.

PAUL: Baina nola bururatu zait dirutza hori ateratzea kleptomano-mordo baten aurrean! Barkatu, Maggie, ez gaizki ulertu...

MAGGIE: Ez, ez, arrazoi duzu.

PAUL: Ez, ez daukat arrazoirik! Okertu egin naiz, eta barkamena eskatu behar dizut oraintxe bertan! Maggie, asko sentitzen dut... Esaldi zoritxarreko hori nire "ni" zaharrak esan du. Oraingo "niak" fidatu egin nahi du. Konfiantzaren gaia lantzen ari naiz, apurka-apurka, egunero-egunero. Fio naiz zutaz, Maggie. Eta zuk jakitea nahi dut. Kartera lapurtu didazu, baina itzuli egin didazu, ikusten? Ondo dago dena.

MAGGIE: Eskerrik asko.

PAUL: (*Kartera barruan begiratzen du*) Ez, dena ez dago ondo. Non arraio dago dirua?

MAGGIE: Lasai, bueltatuko dizut egunen batean.

PAUL: Bai zera! Bueltatuko didazu derrepentean!

MAGGIE: Aizu, pisutik botatzeko zorian daude. Errenta ordaintzeko behar dut!

PAUL: Eta nik asteburuan erretiro holistikoa egiteko bainuetxe batean!

MAGGIE: Baina ez dituzu konparatuko nire pisuaren errenta eta zure erretiro etilikoa!

PAUL: Holistikoa!

MAGGIE: Bale! Aizu, begira, berdin dio. Hor duzu telebista, eta musika-ekipoa, eta mikrouhin-labea, berri-berria. Eramantzazu dena! Den-dena! Zuretzat! Ni porru eginda nago! Ezin naiz itzuli errehabilitazio-programara. Joatekoa nintzen, baina ezin dut. Sentitzen dut, Paul.

PAUL: Maggie.

MAGGIE: Agur, Paul.

PAUL: Utzi Toblerone hori, Maggie!

MAGGIE: Bai zera!

PAUL: Emadazu Tobleronea.

MAGGIE: Ezta pentsatu ere!

PAUL: Maggie, ez duzu jan nahi!

MAGGIE: Bai, jan nahi dut!

PAUL: Ezin duzu jan Toblerone hori, Maggie!

MAGGIE: Utzi bakean nire Tobleronea!

PAUL: Emadazu Tobleronea!

MAGGIE: Aizu, Paul, oso serio ari naiz. Tipo majoa zara eta nahi duzun guztia. Baina ez ni izorratu Tobleronearekin! Deitu poliziari; salatu nahi baduzu. Bost axola! Baina utzi bakean nire Tobleronea. Utzi bakean nire Tobleronea!

PAUL: Oso ondo. JAKOAREN hurrengo batzarrera eramango zaitut.

MAGGIE: JAKOA?

PAUL: Bai, JAKOAREN kidea naiz.

MAGGIE: Yonkia zara, Paul?

PAUL: Ez, Jatun Konpultsibo Anonimoa.

MAGGIE: A, baina zuk ez daukazu jatun konpultsiboaren inongo itxurarik.

PAUL: Ba, duela bi urte 238 kilo pisatzen nuen.

MAGGIE: Bai zera.

PAUL: Begira, ni naiz, Egipton, gamelu batekin. Ni goikoa naiz.

MAGGIE: Jainko maitea!

PAUL: Eta hau gamelu bera 10 minutu geroago.

MAGGIE: Zer dago, lotan?

PAUL: Ez. Egunero begirutzen diot argazki honi, ez ahazteko nire konpultsioak besteei eragin dien mina eta sufrimendua, berdin da pertsonak, animaliak, gauzak edo gameluak izan. (*Gameluari*) Barkatu, lagun. Garai hartan, hondakina baino ez nintzen. Hiru pakete erretzen nituen egunean, eta beste hiru gauean. Eta bietako bat: edo telebista aurrean etzanda nengoen jan eta jan zerrien antzera, edo kalean, lapurreta egiten kristo guztiari. Potolo nazkagarria eta kleptomano amorratua nintzen. Lur jota nengoen, nire burua gorroto nuen; hainbesteko gorrotoa nuen barruan, ez nintzen ezer egiteko gauza. Zu sentitu zara inoiz horrela?

MAGGIE: Etengabe.

PAUL: (*Besoak zabalik: besarkada*) Maite duzu... bizitza?

MAGGIE: Zer?

PAUL: Ea maite duzun bizitza?

MAGGIE: Ez dakit.

PAUL: Nik maite dut, izugarri gainera. Baina ez da beti hala izan. (*Isilunea*)

MAGGIE: Ez dut ulertzen zergatik zaren hain atsegina nirekin 800 dolar lapurtu eta gero.

PAUL: Nik ere ez. Bueno, barkamena eskatu baino ez duzu, eta agindu bueltatu egingo dizkidazula. Egia esan, zoragarria litzateke neu izatea lehena gauza horiek entzuten.

MAGGIE: Paul...

PAUL: Saiatu. (*Isilunea*)

MAGGIE: Paul, nik... nik...

PAUL: Zuk...

MAGGIE: Lapurtu egin dizut, Paul...

PAUL: Barkatu?

MAGGIE: Lapurtu egin dizut.

PAUL: Ondo. Zenbat?

MAGGIE: Paul, 800 dolar lapurtu dizkizut. Ni...

PAUL: Ondo. Primeran ari zara. Segi.

MAGGIE: ... lotsatuta nago.

PAUL: Ondo.

MAGGIE: Lotsa-lotsa eginda.

PAUL: Oso ondo.

MAGGIE: Ezin lotsatuago.

PAUL: Bikain.

MAGGIE: Agintzen dizut azken txakur txikia ere bueltatuko dizudala. Tori, lau dolar. 796 (zazpiehun da laurogeita hamasei) zor dizkizut bakarrik.

PAUL: Pozik onartzen dut zure damua. Zu ez zara senargabea, ezta?

MAGGIE: Bada pare bat hilabete mutilarekin hautsi nuela. Ze ba?

PAUL: Zergatik hautsi zenuten?

MAGGIE: Mozkortia eta gezurtero merkea delako.

PAUL: Ya.

MAGGIE: Bueno, Flaco-k baditu bere gauza onak ere.

PAUL: Flaco?!

MAGGIE: Bai, argala esan nahi du chicanos.

PAUL: A.

MAGGIE: Flaco pentsatu gabe jokutzen duten horietakoa da, eta hori sekulako plana da ez baduzu inolako asmorik bizitzan zerbait egiteko. Flaco desastre hutsa da.

PAUL: Aizu, garai batean ni ere ez nintzen aingerutxo bat.

MAGGIE: Bai, seguru.

PAUL: Zuk bortxatu duzu inoiz kutxa gotorren bat?

MAGGIE: Ez. Zuk bai, ala?

PAUL: Ezaguna duzu Maury Handelman izena?

MAGGIE: Nor?

PAUL: Kutxa gotorren bortxatzaile ospetsua. Lapur-zuloa bandaren liderra izan zen.

MAGGIE: Lapur-zuloa banda, zer da hori?

PAUL: XX. mendeko gaizkile-talde judutarrik handiena. Hogeita hamar eta berrogeiko hamarkadetan, Maury Handelmanek eta haren bandak 200 kutxa gotorretik gora bortxatu zituzten. Baina ez zuten inoiz indarkeriarik erabili gizakien kontra. Ba, Maury Handelman nire aitona da.

MAGGIE: Benetan?

PAUL: Eta nire maisua.

MAGGIE: Sekulako dirutza izango du, ezta?

PAUL: Ba, ez. Sarraila-denda batean dabil lanean.

MAGGIE: Ez da aberatsa?

PAUL: Ez. Hori ez zen Lapur-zuloaren filosofia. Dirua? Eman egin zuten guztia liburutegiak egiteko.

MAGGIE: Liburutegiak?

PAUL: Liburutegiak.

MAGGIE: Baina zuk bortxatu duzu inoiz kutxa gotorrik?

PAUL: Noiz edo noiz. Baina orain garbi nago. Osasuna daukat, neurritsua naiz. Ez dut erretzen, ez dut edaten, ez dut drogarik hartzen, ez dut okela gorririk jaten, ez azukrerik, ez esnekirik, ez garirik, eta programari esker lapurretarik ere ez dut egiten. Eta lasai asko esan dezaket ez naizela sekula santan berriz eroriko.

MAGGIE: Ikaragarria.

PAUL: Ba, bai. (*Lurrera erortzen da aulkia eta guzti. Maggie laguntzera altxatzen da. Lurrean dela.*) Lasai, gustura nago lurrean. Eta zu... zera, zu eta "Flaco" hori... zure ustez, litekeena da berriro elkartzea?

MAGGIE: Egia esan, kostatzen ari zaio pittin bat mezua harrapatzea. Nire arrastoan ibiltzen da beti, eta baten bati bururatzen bazaio niri begiratzea, uff, ezin duzu imajinatu nola jartzen den! Gogoan dut behin borrokan hasi zela mutil gihartsu batekin komentario bat egin zidalako. Schwartzenegger-en berdin-berdina zen. Eta Flaco koitadua mengel samarra da. Baina haren gainera oldartu zen. Eta tipoa kaskezurra txikitu beharrean ari zitzaiola, bat-batean Flacok galtzontziloak jaitsi eta sekulako koskada eman zion ipurdian. Eta orduan morroiak amore eman eta handik ospa egin zuen uluka, zakur jipoituaren antzera. Eta Flaco altxatu eta atzetik jarraitu zitzaion, ipurdi-pusketak irensten zituen bitartean.

PAUL: Xarmanta mutila!

MAGGIE: Nola esango nizuke nik... Begira, Flaco orain agertu eta hemen ikusiko bazintu, litekeena da ipurdi erdia hemen utzita alde egin behar izatea.

PAUL: (*Izututa.*) Bueno, bueno.

(*Atea jotzen dute, zakar.*)

FLACO: Laztana, irekidazu!

MAGGIE: Joderr! Bera da-eta!

PAUL: Nor, Schwartzenegger?

MAGGIE: Bera!

PAUL: Flaco?! (*Atea astintzen jarraitzen dute*)

FLACO: Oparitxo bat ekarri dizut. Ireki!

MAGGIE: Hobe duzu ezkutatzea.

PAUL: Bai, bai. (*Toki bila.*) Non?

MAGGIE: Komunean.

PAUL: Ez. Zertan ari naiz? Zergatik ez diogu esaten zure adiskide platonikoa naizela? Lasai, utzi niri.

FLACO: IREKIZU ATE PUTA HAU!!!

PAUL: Komuna? (*Paul komunera. Maggieek atea zabaltzen du.*)

FLACO: Jooderr, laztana! (*Musua*) A ze gogoia nuen zu ikusteko!

MAGGIE: Gogorarazten dizut bananduta gaudela.

FLACO: A, egia, ahaztu egiten zait beti.

MAGGIE: Zer nahi duzu, Flaco? (*Korrokada*)

FLACO: Aizu, ze harrera-klase da hori?

MAGGIE: Oheratzekotan nintzen...

FLACO: Ba, esnatu! Kristoren lana daukagu eta oso denbora gutxi. Ze usain dago hemen?! (*Alkohol-potea hartu eta tragoxka bat hartzen du.*) Jode, 96koa. Urte bikaina!

MAGGIE: Usaina? (*Flaco usnaka*)

FLACO: "Busco a Jacks"... "Busco a Jacks" kolonia-usaina dago!

MAGGIE: Ba, nik ez dut ezer usaintzen.

FLACO: Zergatik dago etxe osoan "Busco a Jacks" koloniaren usaina?!

MAGGIE: Ez dakit... A, programaren ikuskatzailea hemen izan zen atzo...

FLACO: Atzo? Ez, kirats hau ez da atzokoa! Ostia, zeinena da kartera hau?

MAGGIE: Ze kartera?

FLACO: "Ze kartera?!" Kartera hau! Gizon-kartera ematen duen kartera hau.

MAGGIE: Zoaz hemendik, Flaco. Jada ez naiz zure neska.

FLACO: Gizon bat daukazu hemen, ezta?!

MAGGIE: Ez.

FLACO: Gezurra! Ziria sartu nahi didazu! Hi, putakume arraioa! Atera hadi hagoen tokitik!

MAGGIE: Alde nire etxetik, Flaco! (*Abaildurik*)

FLACO: Ez dago gizonik hemen, ezta?!

MAGGIE: Ez!

FLACO: Ba, orduan, uste dut lapur bat daukazula etxean. (*Flacok pistola ateratzen du.*)

MAGGIE: Flaco!

FLACO: Atera hadi, putakumea! Ze ari haiz, lepurretan edo txortan nire neskarekin?

MAGGIE: Flaco! Utzi pistola hori!

FLACO: Esantzak, zer haiz lapurra ala larrutero zikina?! (*Paul komunetik irteten da.*)

PAUL: Paul Handleman, adiskide, eta ez nauk ez lapurra ez larruteroa! Adiskidea. Adiskide gay inpotentea eta guztiz kaltegabea!

FLACO: Eta ze ostia ari haiz hemen?

PAUL: Bisitan etorri nauk.

MAGGIE: Gorde ezazu pistola madarikatu hori. Oraintxe bertan! (*Flacok kasu egiten dio.*)

FLACO: Barkatu, laztana. Pittin bat urduri nabil.

MAGGIE: Eseri! Zertara etorri zara, Flaco?

FLACO: Albisteak dauzkat!

MAGGIE: Ze albiste-mota?

FLACO: Bakarrean kontatuko dizut. Esan marikoi inpotente honi ospa egiteko.

MAGGIE: Paul Handleman izena du, eta ez da mugituko hemendik.

PAUL: Bai, bai, ni banindoan.

MAGGIE: Zu ez zoaz inora. Eseri.

FLACO: Baina zein arraio da hau?!

PAUL: Paul Handleman.

FLACO: "Paul Handleman"?

PAUL: Bai, Paul Handleman.

FLACO: Hik ez daukak "Paul Handleman"-en itxurarik!

PAUL: Adoptatua nauk-eta.

FLACO: Ze?!

PAUL: Adoptatua. Adoptatu egin ninditean. Bost anai-arreba gaituk. Denak adoptatuak. Gurasoek gustukoa zitean adoptatzea. (*Barrea.*)

FLACO: Bale, primeran, ondo arraio zegok dena. Baina nik negozioak zeuzkaat nire neskarekin; beraz, aterazak hire ipurdi adoptatua hemendik arrapaladan!

PAUL: Bale.

MAGGIE: Eseri!

PAUL: Nahiago diat hemen geratu.

FLACO: Nahiago duala ze?!

PAUL: Ez nauk lasai joango hi berarekin utzita.

FLACO: Bale, beharbada lasaiago joango haiz konorterik gabe utzita!

MAGGIE: Geldi hor! Esan behar didazuna honen aurrean esan.

FLACO: Baina negozioak dira.

MAGGIE: Nik ez dut ezertxo ere jakin nahi zure “negozioei” buruz.

FLACO: Aizu, umezurtz honek ez dauka marikoi inpotente itxurarik inondik inora!

PAUL: Ezetz?

FLACO: Ze, larrua jotzen diozu, ezta?!

MAGGIE: Zu stripper txoriburu urdanga horrekin zabilta, ze arraio inporta zaizu zuri ni norekin nabilen?

FLACO: Alegia, larrua jotzen diozula!

PAUL: Ez zegok sexurik! Batere ez! Zero patatero!

MAGGIE: Ez nabil berarekin, Flaco.

FLACO: Baina gustura ibiliko zinateke, ezta?!

MAGGIE: Flaco...

FLACO: Baina zein ostia da tipo hau?! Ze kristo egiten du hemen?!

PAUL: Ni... ni bere tutorea nauk.

FLACO: Tutorea? Ze arraio da tutorea?

PAUL: Maggie 12 urratseko programa bat egiten ari duk lapurrak errehabilitatzeko. Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa... Eta ni laguntzen ari natzaioke errehabilitazioan.

FLACO: Errehabilitazioa? Zer duzu, tendinitisa?

MAGGIE: Nire bizitza aldatu nahi dut, Flaco. Eta Paul laguntzen ari zait.

FLACO: Zer arraio gertatzen zaio ba zure bizitzari?

MAGGIE: Nire bizitza kaka hutsa dela! Horixe gertatzen zaio nire bizitzari!

FLACO: Eta hori nire errua al da?!

MAGGIE: Bizimodua aldatu nahi dut!

FLACO: Bizimodua aldatu? Ondo, laztana, horrexegatik etorri naiz! Gauza bat kontatu behar dizut. Eta bizimodua aldatuko zaizu, ez izan zalantzarik... Baina ezin dizut kontatu beste honen aurrean.

MAGGIE: Zergatik ez?

FLACO: Ba, zerikusia daukalako, badakizu, “negozioekin”.

PAUL: Negozio “kriminalak”?

FLACO: Hirekin ari al nauk?

PAUL: Ai, ama, ni banoa, Maggie. Zure tutorea naiz, eta arren eskatzen dizut ez geratzeko hemen bakarrik. Orain irteten bagara, bederatzietako batzarrera iritsi gaitezke.

FLACO: Maggie, ez egin kasurik txorimalo adoptatu honi. Burua berotu nahi dizu. Ze jakingo ote du kaiku honek delinkuentziari buruz?

PAUL: Ba, dezente zekiat delinkuentziari buruz. Hik baino gehiago agian.

FLACO: Bai, seguru... pailazo. Entzun, Maggie...

PAUL: Hik bortxatu duk inoiz kutxa gotorren bat?!

FLACO: Ez, pailazo andrea, ez dinat inoiz bortxatu kutxa gotorrik. Zergatik? Hik bai, ala?

PAUL: Ba, egia esan, bai.

FLACO: Hoa popatik hartzera.

PAUL: Ba, nahi duanean.

MAGGIE: Egia da, Flaco. Egin du.

FLACO: Ez esan! Benetan? Honek?

PAUL: Noiz edo noiz.

FLACO: Badakik kutxak bortxatzen?

PAUL: Bai, esan diat lehen.

FLACO: Benetan?...

PAUL: Jesuuus...

FLACO; Jodeer! Hau seinale garbia da! Hator, lasai. Eseri, pailazo!

MAGGIE: Gu bagoaz.

FLACO: Kontatu behar dizuedana entzun bezain pronto, hemen geratu nahiko duzue. Zuen bizimodua aldatzeko zorian nago.

MAGGIE: Zuk zeozer erre duzu etorri aurretik, ezta?

PAUL: Flaco, atsegin handia izan duk. Goazen, Maggie.

FLACO: Zazpiehun eta berrogeita hamar mila dolar zaintzarik gabe lokal publiko batean! Zazpiehun eta berrogeita hamar mila dolar! Ez zaizue interesatzen?!

MAGGIE: Patetikoa zara, Flaco, eta tristea. Otoitz egingo dut zure alde...
Itxoin, Paul. Aldatzera noa.

PAUL: 750.000 dolar?

FLACO: Aja!

PAUL: Non daude 750.000 dolar horiek?

FLACO: Azkar pasatu zaik marikoikeria, ezta? Ezer baino lehen, frogatu behar didak gai haizela kutxa gotorrak bortxatzeko.

PAUL: Oso ondo. Kutxa gotorrik ba al daukak aldamenean?

FLACO: Ez.

PAUL: Ba, orduan, zail samarra izango duk frogatzea.

MAGGIE: Goazen, Paul.

PAUL: Nola dakik dirua han dagoela?

FLACO: Ikusi duen tipo bat ezagutzen diat.

MAGGIE: Paul! (*Harrituta*)

PAUL: Maggie, ez daukat inolako asmorik ezer egiteko. Hizketan ari gara, besterik ez.

FLACO: Hori da, hizketan ari gara, besterik ez.

PAUL: Ze lokal-mota da?

FLACO: Diskoteka bat.

PAUL: 750.000 dolar diskoteka batean?

FLACO: Txo, VIPentzako diskoteka duk. Leonardo da Vinci eta konpainia han ibiltzen dituk!

PAUL: Nor?

FLACO: “Titanic”eko aktorea, pailazo! Hi ez haiz zinera joaten edo ze kristo?

MAGGIE: Paul, lehen esan didazu delinkuentzia erabat utzita zeundela.

PAUL: Bai, egia da, hori esan dut. Baina 750.000 dolar ez dira delinkuentzia. Negozioak dira.

MAGGIE: Kaka zaharra, Flaco! (*Jo egiten du*) Gaztetasuna lapurtu zenidan, herentzia, bihotza, birjintasuna, eta orain tutorea ere lapurtu nahi didazu? Eta zer eta pitokeria batengatik? Ze, zuk ondotxo dakizu pitokeria galanta dela!

FLACO: Ez da inolako pitokeria, Maggie. Kontu serioa da.

PAUL: Ondo. Hitzegintzak.

MAGGIE: Paul! 682 (seiehun da laurogeita bi) egun daramatzazu garbi!

PAUL: Maggie, errehabilitazioak “Garapenarekin” dauka zerikusia, eta ez “Perfekzioarekin”. Liburu Handian idatzita dago.

MAGGIE: Benetan?

PAUL: Zin egiten dizut munduko bakearen izenean.

FLACO: Maggie, ez dut sekula hain zintzo jokatu. Benetan! Baina gauerdia baino lehen egin behar dugu; ze, 12etan, baten bat joango da dirua erretiratzera.

PAUL: Nor?

FLACO: Marikoi italiar batzuk. Entzun. Marikoi italiar horiek sekulako dirutza egiten ari dituk, kategoriako farlopa pasatzen dutelako prezio barregarrian. Ez dituk mafia ezagun batekoak. Independentek dituk. Beraz, ez zegok mendekurako arriskurik. Dirua Ephifany diskotekako sotoan gordetzen ditek, kutxa gotor batean. Astelehenero-astelehenero, gaueko hamabietan, norbait joaten duk dirua jasotzera. Gaur astelehena duk, gaueko bederatziak (dituk), eta kutxa horretan 750.000 dolar zeudek. Zer dela eta dakidan nik hori? Ba, oso laguna dudalako sotoa zaintzen duen tipo bakarra: Raheem. Eta horrek frogatzen dik marikoi horiek ez direla batere bizkorrak: chihuahua disekatu batek ere hobeto defendatuko likek gotorlekua nire lagun Raheemek baino. Gramo-erdi baten truke informazioa eman zidak, sotoko giltza eta musu bat ipurdian. Eta beste gramo-erdi bat oparituz gero, poz-pozik hartuko likek muturreko bat kulatarekin, itxurak gordetzeko. Kulatarekin jotzea Boochieren kontu.

PAUL: Ahaztu kulatak. Armarik ez.

FLACO: Nola armarik ez?

PAUL: Armak erabiliz gero, nik ez diat parte hartuko.

FLACO: Eta orduan nola nahi duk hortzak txikitzea?

PAUL: Ukondoarekin.

FLACO: Bale, ados, armarik ez.

PAUL: (*Flacori*) Nor da Boochie?

FLACO: Lagun bat.

MAGGIE: Bere neska berria!

FLACO: Esan dizut lehen, ez da nire neska. Nik sinisten dut bigarren eztialdietan, laztana. Emango dizut beste aukera bat une egokia iritsitakoan.

PAUL: Nola banatuko dugu dirua?

FLACO: Hori aurrerago eztabaidatuko diagu.

PAUL: Ez. Hori oraintxe eztabaidatuko diagu!

FLACO: Konforme. 300 mila niretzat, 150 Boochierentzat, eta beste 150 zuetako bakoitzarentzat.

PAUL: (*Barrez*) Txantxetan ari haiz?

FLACO: Hemen ni nauk liderra; eta hi, berriz, adoptatua! Nik aurkitu diat altxorra, nik prestatu diat plana, ni izango nauk lehen susmagarria, eta nik hartzen diat neure gain arrisku guztia. Hortaz, 300.000 niretzat!

PAUL: Hauxe duk tratua: diru erdia karitaterako.

FLACO: Karitatea! Karitatea! Hori zer da, dirua “oparitzea”?!?

PAUL: Karitatea duk 375.000 dolar oparitzea liburutegi berri bat zabaltzeko, hemen, auzoan. Toki bat haurrek irakur eta ikas dezaten balak beren buru gainean hegan ibili gabe.

FLACO: Haurrak? Ze haur?

PAUL: Auzokoak.

FLACO: Hi, izorra daitezela haur puta horiek! Itsulapikoa puskatzea zeukatek liburutegia eraikitzeko!

MAGGIE: Ni ados nago Paulekin.

FLACO: Jooderr! Hau traizioa! Baina, ze arraio ikusten diozu tontolapiko honi? Bale, konforme!!! Diru-pixka bat gordeko diagu ditzosozko liburutegi hori egiteko! Taloa bidaliko zieagu. Zer moduz 500? Badakik zenbat liburu eros daitekeen 500 dolarrekin? Ehunka mila miloi!

PAUL: 375.000 edo batere ez. Begira, nire familian tradizio luzea diagu krimen filantropikoak egiten. Eta nik tradizioari eutsi behar zioat.

FLACO: (*Sutan*) Jodeee... Bale, nahi duzuen bezala. Baina entzunzak hau garbi, Julaiman: ez baduk lortzen kutxa zabaltzea, arrisku bizian daukak hire kaskezur hori. Ados?

PAUL: Ados.

MAGGIE: Zergatik eraman behar dugu zure neska? Zuk uste duzu horrek badaukala bururik honetarako? Uste duzu badaukala bururik edozertarako?

FLACO: Izugarri azkarra eta trebea da.

(*Atea jotzen dute.*)

BOOCHIE: Flaco? Hor al zaude?

MAGGIE: Nor da?

FLACO: Boochie... Etortzeko esan diot. Boochie! (*Txaloa. Atea zabaltzen saiatzen da*) Sartu, sartu, irekita dago.

BOOCHIE: (*Kolpea*) Itxita dago! Maggie...

(*Maggiak zabaltzen du atea.*) (*Boochie sartzen da, stripper-ez jantzita.*)

FLACO: Kaixo, polita!

BOOCHIE: Kaixo, pappi txulo! (*Boochiek inguruan begiratzen du.*) Flaco, etxe hau izugarria da...

FLACO: Ze arropa da hau?

BOOCHIE: Lanetik nator.

FLACO: Boochie, hau Maggie da.

BOOCHIE: Ez zintudan imajinatzen hain itsusia.

MAGGIE: A ez? Ba, nik ez zintudan imajinatzen hain anormala.

FLACO: Aizue, neskak! Eutsi diezaiogun profesionaltasunari. Hauek "negozioak" dira-eta.

BOOCHIE: Eta hori, zein da?

FLACO: Kutxa zabalduko digun txoropito adoptatua. Goazen.

BOOCHIE: Ez zuen, ba, Arnik zabaldu behar?

FLACO: Ospitalean dago: atso batek harrapatu du gurpil-aulki batekin.

PAUL: Badakik gauza bat? Ez nauk batere eroso sentitzen hi lankide edukita. Ez nauk fidatzen hitaz, eta are gutxiago hire planaz.

MAGGIE: Ezta ni ere.

BOOCHIE: Egia esan, Flaco, ni ere ez.

FLACO: Kaka zaharra zuretzat, zuretzat eta zuretzat! Nola liteke hain mesfidati izatea?! Lapurreta perfektua diseinatu dut, jode; kontrolpean dauzkat xehetasun guztiak. Onartu ditut zuen baldintza xebreak, eta zuek kritikatu eta kritikatu ari zarete, besterik ez! Entzun ondo. Lapurreta hau bizikletan ibiltzea bezain erraza da. Eta sinplea. Ezin sinpleagoa izan. Haur atzeratu batek ere egin dezake. Eta zergatik? Ba, diseinu perfektua egin dudalako. Estalita dauzkat zulo guztiak, ez dago kale egiterik. Bi arazo bakarrik dauzkagu: zertan gastatu dirutza hori eta zertan gastatu dirutza hori. Erabateko babalorea izan beharra dago nire plana kakazteko!

BIGARREN EKITALDIA

1. eszena

Lapur-zuloa. Flaco, Paul, Maggie eta Boochie ilaran eserita daude. Lotuta dauzkate oinak eta eskuak. Poltsak dituzte buru gainean. Denbora pixka bat iragan ondoren, Sal agertzen da, sekulako pistola eskuan eta telefonoz hizketan.

SAL: *(Telefonoz.)* Grekoa al haiz?... Greko, Sal Agirre nauk. Jimmyk eman zidak hire zenbakia, esan zidak... Zer?!... Ze arraio esan nahi duk “Ezin dut” horrekin?... Hara, Greko, hik ez daukak puta ideiarik norekin ari haizen, ezta?... Ondo, badakik nor den nire nagusia?... Tuna Handia. Hoori duk! Ba, balitekek nagusiari kontatu behar izatea, Tuna Handiari, nola galdu dioan errespetua bere senide bati. Hori nahi al duk?... Horren errezeloa nian...

PAUL: Lagundu!

SAL: Itxoinzak pixka bat, Greko. Zein izan da? *(Sal Paul aldera doa.)* Zerbait nahi huen?

PAUL: Sokak min pixka bat ematen zidan, baina pasa zait.

SAL: *(Salek ahoan sartzen dio pistola.)* Hor al hago, Greko? Ondo. Jokatu ehuna dolar orain esango ditudan talde hauen alde: Rams, Charges, Eagles, Dallas, Miami, eta (kaka zaharra jainkoari!) umm... egon. *(Pauli)* Hik gogoko al duk futbola?

PAUL: Baiii. Izugarri.

SAL: Ze talde nahiago, Bears ala Lions?

PAUL: Bueno...

FLACO: Athletic! *(Salek kolpea ematen dio.)*

PAUL: L-Lions.

SAL: Lions? Hi, Greko, Bears-en alde berrehun...

PAUL: Lions. *(Salek kolpea ematen dio.)*

SAL: Utzidak aholku bat ematen, adiskide. Hurrengo batean, ez badakik nor naizen ni... hobe duk ni nor naizen jakitea! *(Komuneko bonbaren zarata. Lou sartzen da, “Little Tuna”.)*

LITTLE TUNA: Norekin ari hintzen, Sal?

SAL: Amarekin.

LITTLE TUNA: Ez zuan apustu-artekaria izango, ezta?

SAL: Lasai, Lou, utzita nago, badakizu.

LITTLE TUNA: Hala espero diat... Zer moduz zure mamma?

SAL: Suntsiezina, zera bezalakoa... zera... suntsitu ezin daitekeen gauza bat bezalakoa.

LITTLE TUNA: Hitz egin al duk... kapoarekin?

SAL: Bai.

LITTLE TUNA: Zer esan dik?

SAL: Bihar goizean itzuliko dela Medellindik. Koka... Coca-Colarekin.

LITTLE TUNA: Eta zer gehiago?

SAL: Hauek akabatzeko: dinbi-danba! Txiki-txiki egin eta ibaira. Animo, egiezu tiro, gizona. Afaria ia prest dago.

LITTLE TUNA: Zer zegok afaltzeko?

SAL: Bakailaoa pil-pilean.

LITTLE TUNA: Badakik zer? Pistola izorratu egin zaidak.

SAL: No me jodas!

LITTLE TUNA: Galtza bakeroetan utzi eta neskameak garbitu egin zitian. Eta orain ur-pistola ematen dik.

SAL: To, erabili nirea.

LITTLE TUNA: Ederra pistoletoa.

SAL: Eskerrik asko. (*Isilunea*)

LITTLE TUNA: Sal, badakik zer? Gaur ez zeukaat gogorik inor garbitzeko.

SAL: Lasai, neuk egingo dut.

LITTLE TUNA: Eskerrik asko, Sal.

SAL: Zu segi gora, eta jolastu Nintendoarekin. Deituko dizut afaria prest dagoenean.

LITTLE TUNA: Bale. (*Katua jasotzen dio armari.*) Sal?

SAL: Bai?

LITTLE TUNA: Perrexila daukak hortzetan.

SAL: Perrexila?

LITTLE TUNA: Badakik zer esan nahi duen horrek?

SAL: Ez ditudala hortzak garbitu.

LITTLE TUNA: Ez, prestatzen ari haizena ez dela bakailaoa pil-pilean. Pil-pilari ez zaiok perrexilik bota behar.

SAL: Ez da izango!

LITTLE TUNA: Aizak, Sal, nik ezagutzen al diat jende hau? Zeintzuk dituk?

SAL: Ba al dakit ba nik?! Yonki-koadrila bat edo.

LITTLE TUNA: ... Kendu poltsak, Sal. Aurpegia ikusi nahi zieat.

SAL: Zertarako ikusi nahi dituzu?

LITTLE TUNA: Egintzak agindutakoa.

SAL: Tira, Lou. Ez zaitez orain kikildu.

LITTLE TUNA: Kikildu? Kikilduta ikusten al nauk?

SAL: Ez nuen "kikildu" esan nahi. "Kokildu" esan nahi nuen.

LITTLE TUNA: Nork agintzen dik hemen, hik ala nik?

SAL: Zuk.

LITTLE TUNA: Esantzak.

SAL: Zer?

LITTLE TUNA: Esantzak: ni nauk nagusia.

SAL: Ni nauk nagusia.

LITTLE TUNA: Porca putana troya!

SAL: Alegia, zu, zu zara nagusia.

LITTLE TUNA: Hori duk. Ba, nagusiak esan dik poltsak kentzeko burutik, nagusiak ikusi egin nahi dituelako. Arazoren bat al daukak horrekin? (*Salek poltsak kentzen dizkie.*) Baina, zer da hau? Eta bi neska eder hauek? Tartean al zebiltzak ba hauek ere?

SAL: Baiii horixe.

LITTLE TUNA: Andereñoak, zergatik jarri nauzue egoera honetan? Nik ez zaituztet hil nahi. Hori ez da nire estiloa. Nahiago dut zuei amodioa egin, eta zuen errespetua irabazi, eta zuekin afaldu eta ondoren ilunsentia ikusi brandy-kopa bat edanez. Baina zuek, andereñoak, ez didazue uzten beste aukerarik. Zorte handia da Salek arazorik ez edukitzea neska ederrak akabatzeko.

SAL: Horixe da nire gurutzea.

LITTLE TUNA: Heriotza, adiskideok, heriotza da “Tuna Arrantzale Handiari” lapurreta egiten dionak merezi duen zigorra.

FLACO: Ez genekien zuri ari ginela lapurreta egiten.

LITTLE TUNA: (*Adeitsu*) Barkatu. Zerbait esan duk?

FLACO: Bai, esaten ari nintzen...

LITTLE TUNA: Sal, emaiok! (*Salek masaileko handia ematen dio.*) Hik ez duk ezer esan behar! Hemen nik bakarrik hitz egiten diat. Nik bakarrik! Capizzi?

FLACO: Bai, noski, baina ni...

LITTLE TUNA: Sal, emaiok! (*Masaileko handiagoa ematen dio.*) Hik ez daukak hitz egiterik. Hemen nik hitz egiten diat. Capizzi?

FLACO: Bai.

LITTLE TUNA: Joder! Sal, emaiok berriro.

SAL: Zer moduz tiro egiten badiot? Lehenago bukatuko dugu.

LITTLE TUNA: Nik esan al diat, ba, tiro egiteko?

SAL: Ez, nik bakarrik esan nahi dut zenbat eta lehenago garbitu orduan eta lehenago afalduko dugula. Ni goseak amorratzen nago. Zu ez zaude gosetuta?

LITTLE TUNA: Sagardo gehiago ba al zegok?

SAL: Nahi hainbeste.

LITTLE TUNA: Seguru?

SAL: Baietz ba.

LITTLE TUNA: Sal, mesedea eskatu behar diat. Ezidak esan badagoela sagardoa, eta gero mahaian eseri eta sagardorik ez.

BOOCHIE: Mesedez, ez gaitzazu hil, Mafioso jaun sexi hori!

LITTLE TUNA: Oi! Arima apurtu didazu, polita, baina alferrik ari zarete zuen bizitzaren alde erreguka.

PAUL: Zergatik ez duzu denbora pixka bat hartzen hobeto pentsatzeko?

LITTLE TUNA: Sal, ze arraio ari duk esaten mozolo hau?

SAL: Nire ustez, iraintzen ari zaizu.

LITTLE TUNA: (*Maggie: soinua sudurrarekin*) Santa madonna! Negarrez ari duk-eta.

SAL: Ez du ba negarrik egin dirua lapurtzen ari zitzaizunean.

MAGGIE: Ez, ez, katarroa daukat.

LITTLE TUNA: Egin zintz, polita.

SAL: Lou...

LITTLE TUNA: Sal, egidak medesea. Hoa sagardoa eroatera.

SAL: Lou, ze demontre ari zara?

LITTLE TUNA: “Ze demontre ari naizen?!”... Escusi siñorina. (*Lehertuz*)
Hara, Sal, hoa merkatura eta erosizak kaxa bat sagardo, oraintxe bertan.

SAL: Sobran daukagu, Lou!

LITTLE TUNA: Barkatu, Sal. Kartelen bat ikusi didak hemen, “Baboa naiz, eztabaidatu nirekin” dioena, ala?! Hi al haiz TUNA HANDIAREN SEMEA?! Hi al haiz tronuaren oinordekoa?! Hi al haiz?!

SAL: Ez.

LITTLE TUNA: Nor duk?

SAL: Zu, Lou.

LITTLE TUNA: Zer nauk ni?

SAL: “Truñoaren koñordekoa”.

LITTLE TUNA: Izugarri maite diat sagardoa, Sal. Sagardo-mordoa nahi diat!

SAL: Nik bakarrik esan nahi...

LITTLE TUNA: Sagardoa, Sal. Sagardoa! Sagardoa!

SAL: Baina, Lou.

LAURAK: Sagardoa, Sal. Sagardoa!

SAL: Tortura ditzaket bueltatzen naizenean?

LITTLE TUNA: Ospa! (*Sal irten egiten da.*) Joder!

BOOCHIE: Nik ere izugarri maite dut sagardoa, Tuna jauna.

FLACO: Bai, sagardoa gauza ederra da.

PAUL: Bai, niri izugarri gustatzen zait.

FLACO: Ez genekien zure etxean ari ginela lapurretan.

PAUL: Jakin izan bagenu, ez genuen sekula santan egingo.

BOOCHIE: Oso planta oneko gizona zara, Tuna jauna.

FLACO: Hau gaizki-ulertua izan da.

BOOCHIE: Alde egingo dugu hiritik. Zin egiten dizut.

PAUL: Tuna jauna, barkatu.

FLACO: Aizu, Tuna jauna, erruki zaitez gutaz!

PAUL: Mesedez!

LITTLE TUNA: (*Maggieri*) Aizu, zu zergatik ez zara makurtzen pailazo hauek bezala?

MAGGIE: Garbi utzi duzu hil egingo gaituzula.

LITTLE TUNA: Baina orain aukera daukazu nire borondate ona eskatzeko.

MAGGIE: Ez dut zure borondate ona eskatu nahi.

LITTLE TUNA: Zergatik ez?

MAGGIE: Zuk ez daukazu batere itxurarik inoren eskaerak betetzeko.

FLACO: Tuna jauna, ez egin kasurik! Ez zaitu iraundu nahi.

LITTLE TUNA: Ze izen daukak hik?

FLACO: Flaco.

LITTLE TUNA: Flaco, el Gordo y el Flaco bezala?

FLACO: Ez, el Gordo bezala, ez; el Flaco bezala.

LITTLE TUNA: Zure izena, andereño?

MAGGIE: Maggie.

LITTLE TUNA: Maggie, esan didazuna ez da bidezkoa, ez da batere bidezkoa. Baina mirestekoa da zure ausardia.

BOOCHIE: Ni Boochie naiz. Eta ni ere oso ausarta naiz.

LITTLE TUNA: Oso ederra zu ere. Bueno, Maggie, zer ari zara baldar-koadrila honekin?

MAGGIE: Ba, dirudienez, hiltzen haiekin batera, ezta?

LITTLE TUNA: Lotsagabea! Gustatzen zait. Oso emakume ederra zara. Baliteke konponbideren bat aurkitzea.

MAGGIE: Laurontzat?

LITTLE TUNA: Ez. Zuretzat.

MAGGIE: Orduan, ez zait interesatzen.

LITTLE TUNA: Hortaz, nahiago duzu hil nirekin egon baino? Hori esan nahi didazu?

MAGGIE: Esan nahi dizut asmoa baldin badaukazu jende hau hiltzeko, neu ere hil beharko nauzula. Baina bizirik uzten bagaituzu, kontuan hartuko dut zurekin egoteko eskaera.

BOOCHIE: “Kontuan hartu”!?! Esaiozu baietz, neska!!

MAGGIE: Sr. Tuna, ideiarik ere ez genuen dirua zurea zela. Flaco nire senargai-ohiak prestatu du guztia, eta behin eta berriro esan digu diru garbia zela.

FLACO: Jainkoaren izenean, zin egiten dizut! Nik uste nuen garbia zela!

LITTLE TUNA: Bai, bai, bai. Hori zioke mundu guztiak.

MAGGIE: Lou, benetan ari da. Ez da gezurtia, ergela eta utzia baino.

PAUL: Bat nator horrekin.

MAGGIE: Egia esan, ez genuen batere ondo jokatu lapurreta hori egitean... Sentitzen dut, Lou.

PAUL: Arrazoi daukazu, Maggie. Hainbeste eskari eta erregurekin, desbideratu gara esku artean daukagun auzitik: lapurreta bera. Zure dirua lapurtzen saiatu gara, Tuna jauna. Eta oso gaizki egin dugu. Sentitzen dugu benetan.

LITTLE TUNA: Barkamena eskatzen ari zarete?

LAURAK: Bai! Bai!

LITTLE TUNA: Oso ondo. Orain nik eskatu behar dizuet barkamena denok hil behar zaituztedalako. Negozioa negozioa da. Nire izen ona zaindu behar dut. Egunen batean, neu izango naiz nagusia, eta ez litzateke batere itxurosoa jendeak pentsatuko balu nahikoa dela barkamena eskatzea gauzak arrosa-kolorekoak ikusteko.

MAGGIE: Arrazoi duzu, baina onartzen duzu gure barkamen-eskaera?

LITTLE TUNA: Noski. Zergatik ez? Eta zuek nirea?

PAUL: Jakina, horixe bakarrik behar genuen... Baina gauza bat jakin behar duzu: Maggie eta biok errehabilitazio-programa bat egiten ari gara, eta ezin gara hil oraindik.

LITTLE TUNA: Ba, ederki izorratu zarete.

PAUL: Bai, bai; egia esan, bai.

SAL: Sagardoa, Lou. Ze, hasi egingo gara, ezta?

MAGGIE: Lou, utziko didazu galdera bat egiten?

LITTLE TUNA: Noski, polita.

MAGGIE: Zuk ez duzu inoiz hanka-sartzerik egin?

(Sal sartzen da motozerra eskuan. Martxan jartzen du. Oihu egiten dute guztiek izuturik.)

LITTLE TUNA: Ya!

LITTLE TUNA: Zuek biok ere errehabilitazio-programan zabiltzate?

BOOCHIE: Bai, bihar bertan ginen izena ematekoak.

FLACO: Bai, bai. Gordeta daukagu dirua matrikula pagatzeko.

LITTLE TUNA: Ya... Begira, hau da plana. Ez nuke hau egin behar, baina tira. Zorte oneko zaudete makalaldi batean harrapatu nauzuelako. Maggie, zoragarria zara... izugarri gustatuko litzaidake zu ezagutzea. Gainerakoak, begien bistakoa da ez zaretela profesionalak. Esan nahi dut babalore-koadrila batek bakarrik kakaztu dezakeela horrela plan bat. Hortaz, eskuzabala naizenez, eta niri ere behin barkatu zidatenez makalaldi batean...

SAL: Lou, zertan ari zara?

LITTLE TUNA: Bakailaoa, Sal! Bakailaoa!

SAL: Zer esan dizu txoro-jende honek?

LITTLE TUNA: (*Ohartaraziz.*) Sal...

SAL: Bai, Lou?

LITTLE TUNA: Jakin nahi duk zer esan didan txoro-jende honek? Ba, hau esan didak: "Salek ez dizu kasu putarik egiten. Hobe zenuke haren lanpostua Dino lehengusuari ematea. Eta Sal herrira bueltatu dadila behi eroekin dantza egitera." (*Sal irten egiten da burumakur.*) Oso ondo, entzun denok adi, behin bakarrik esango dizuet-eta: gorpu bat eta hiru atzamar lodi behar ditut. Zuek hartuko duzue erabakia, eta —sinistuidazue— hau tratu ona da! Hiltzera doanak bi tiro jasoko ditu garondoan. Bizkorra eta minik gabea. Maggie, espero dut zuk bizirik jarraitzea: bi sarrera dauzkat Pavarotti ikusteko datorren astean... bi besaulki bosgarren ilaran. Ederki, egunsentian itzuliko naiz Salekin. Eta orduan erantzungo didazue. Sal, goian afalduko diat. Bonna sera a tuti. (*Lou irten egiten da.*)

BELTZA

2. eszena

*Maggiek, Boochiek, Flacok eta Paulek aulkiei lotuta jarraitzen dute.
Eztabaidatzen ari dira. Laster argituko du eguna.*

PAUL: Adiskideok, patuak erabaki dezala. Zotzik txikiena ateratzen duena hilko da.

FLACO: Eta non ikusten duk hik hemen zotz madarikatu bat?!

PAUL: Bueno, baina...

FLACO: Eta, batez ere, nola hartu behar dugu guk zotz madarikatu hori? Gure buztan teleskopikoarekin?

MAGGIE: Lasai, Flaco.

FLACO: Sutan jartzen nau memelo honek. Maggie, zure errua da hau hemen egotea.

MAGGIE: Paulek ez gaitu sartu saltsa honetan, Flaco.

FLACO: Nik ez nekien dirua mafiarena zela.

PAUL: Hik ez hekien dirua mafiarena zela. Ez hekien mafia orduerdi lehenago etorriko zela. Ez hekien ezertxo ere. Eta 750.000 dolar ez dituk lapurtzen ezertxo ere jakin gabe!

FLACO: Nazkante honek nire onetik ateratzen nau.

BOOCHIE: Kaka zaharra, Flaco. Nik ez dut hil nahi.

FLACO: Ez zara hilko pitxurri!

PAUL: Baten bat hilko duk.

FLACO: Bai, baina Boochie ez. Eta ni ere ez.

MAGGIE: Bueno, hori denon artean erabaki beharko dugu, ezta?

FLACO: Noski, laztana, denon artean aukeratuko dugu Paul superdemokratikoki.

PAUL: Zer moduz joko bat egiten badugu?

FLACO: Ez gaia aldatu.

MAGGIE: Ze joko da?

PAUL: Aparta. Galtzen duena hilko da.

BOOCHIE: Ze joko-klase da hori?

PAUL: Nik herrialde bat esango dut, eta Maggie hiri burua esan behar du. Maggie herrialde bat esango dio Boochieri, eta berak hiri burua esan behar du. Boochiek herrialde bat esango dio Flacori eta...

FLACO: Eta Flacori ez zaiok gustatzen.

BOOCHIE: Eta Boochieri ere ez.

PAUL: Bueno... Eta "animalien" jokia?

BOOCHIE: Nola da hori?

PAUL: Nik animalia bat esango dut, Tximino esate baterako. Tximino "O" letraz amaitzen da. Orduan, zuk "O"-z hasten den animalia bat esan behar duzu.

BOOCHIE: Adibidez... oihaneko lehoia?

PAUL: Umm... Bale.

BOOCHIE: (*Pozik denei*) Hau bai, hau bai.

FLACO: Popatik lehoia eta tximinoa. (*Abaildurik.*)

BOOCHIE: Ai, Flaco, nolakoa zaren! Paul?

PAUL: Bai.

BOOCHIE: Barkatu lehen gogaikarri deitu izana.

PAUL: Barkatuta zaude.

BOOCHIE: Ez zara batere gogaikarria. Egia esan, nahiko moñoñoa zara.

PAUL: Eskerrik asko. Zu ere bai.

BOOCHIE: Utziko didazu gauza bat esaten?

PAUL: (*Flacori buruz.*) Zure tximinoak uzten badizu...

FLACO: Ikusiko duk tximino hau askatzen dutenean. Moñoño-moñoño utziko haut!

BOOCHIE: Uste dut oso filosofikoa zarela.

PAUL: Filosofikoa?

BOOCHIE: Bai, eta filosofikoek... blai eginda jartzen naute.

PAUL: "Blai"?

BOOCHIE: Bai, badakizu, hor behean.

PAUL: A.

BOOCHIE: Paul?

PAUL: "Blai"?

BOOCHIE: Ez dakizu ze gauza pasatzen ari zaizkidan burutik.

PAUL: Ze gauza?

BOOCHIE: Gauza sexiak.

PAUL: Adibidez?

BOOCHIE: Ba, bururatu zait heroiaarena egin dezakezula eta zure burua eskaini hiltzeko.

PAUL: A...

BOOCHIE: Egingo zenuke, Paul?

PAUL: Eta zergatik egin behar nuke?

BOOCHIE: Egiten baduzu, xurgatu egingo dizut.

PAUL: Xurgatu?

FLACO: Ze ideia ona, Boochie!... Aizak, egidak kasu: merezi dik!

BOOCHIE: Begira nire ezpainak. Ezpain ederrak dauzkat, ezta? Mardulak, hezeak, ausartak. Eta mingaina? Zer ez ote nizukeen egingo mingain honekin. Begira eztarria... Imajinatzen duzu, Paul? Gau osoan egingo dizut, gelditu gabe. Ikusiko duzu zer den egurra ematea... Azken segundoraino egingo dizut, tiro egin arte. Lortuko dut pistolak eta zuk aldi berean tiro egitea. Utziko didazu galdera bat egiten, Paul?

PAUL: "Blai, blota".

BOOCHIE: Paul txikiak gogoko du miazkatzea eta berarekin jolasean ibiltzea?

PAUL: Bueno, gorroto ere ez du egiten...

BOOCHIE: Eneeeeeee...

PAUL: Zer?

BOOCHIE: Paul txikia esnatzen ari da.

PAUL: Bai, oso goiztiarra da.

BOOCHIE: Zuri gustatuko litzaizuke heroia izatea, ezta, Paul? Esadazu baietz, Paul, eta agurtu egingo zaitut. Heroien antzera agurtuko zaitut.

PAUL: Oso tentegarria da, baina jai duzu.

BOOCHIE: ... Marikoi zikina!

FLACO: ... Utzi, laztana, ez daukazu zer eginik. Estrategia bikaina zen, baina bizkorra da kabroia. Entzun. Badakit nola konpondu hau behingoz. Banan-banan, bizitzeko ze arrazoi dauzkagun esango ditugu guztiok, txandaka. Zer iruditzen? Kontua da... hitzalditxo

bana egitea gai horren inguruan, hiru onenak salbatuko dira eta boto gutxien dituenak akademia utzi beharko du.

PAUL: Tira... zergatik ez?

BOOCHIE: (*Pauli*) Zu ixo, marikoi zikina! (*Flacori*) Segi, bihotza.

FLACO: Ez, bukatu dut.

BOOCHIE: (*Pauli*) Ba, segi zu, marikoi zikina.

PAUL: Esan beharrean zergatik bizi nahi dugun, agian interesgarriagoa da arrazoi-zerrenda batean azaltzea zergatik litzatekeen gure heriotza galera handia gizartearentzat.

FLACO: Adibidez, pailazo?

PAUL: Adibidez: “Gizarteak sufritu egingo du ni hiltzen banaiz; izan ere, hau, eta hori, eta bestea...”

FLACO: Konforme. Zein hasiko da?

BOOCHIE: Ni.

FLACO: Zorte on, polita.

BOOCHIE: Eskerrik asko. (*Eztarria garbitzen du.*) Presidente jauna, kongresukideok, amerikar xume guztiok, ez naiz luzatuko. Ni hiltzen banaiz, gizarteak negar egingo du arrazoi askorengatik. Bat: dantzari exotikoa naiz, eta alaitu egiten ditut gizon bakartiak, eta emakumeak ere bai batzuetan, halako kontu-zaleak baldin badira behintzat. (*Harro*) Hiru: oso bizkorra naiz —begi-bistakoa denez—; hiri honetako hamar, ze hamar? hogeia, emakume bizkorrenetako bat izango naiz dudarik gabe. Eta egia baldin bada New York edertu nahian ari direla, ba, orduan, garbi dago nire premia dutela, ezta?... Bost: nire sexua alokatzen dut, eta horrek esan nahi du txortan egiten dudanean hezi egiten dudala jendea, eta hori oso inportantea da gizartearentzat, ze nik irakatsi egiten diet gizonei larrua behar bezala jotzen, eta jainkoak badaki emakumeak amorratzen daudela gizonek larrua behar bezala jo dezaten... Ezta, Maggie? Zortzi: zaborra deitzen didate guztiek, baita nire amak ere. Baina zer egingo luke Amerikak zaborrik gabe? Norbaitek egin behar du lan zikina gizarte honetan; zeren herrialde honetan, eta mundu osoan seguruenik, milioika pertsona izorraturik biziko litzateke, baina zeharo izorraturik, chicanoak eta putak egongo ez balira inork hartu nahi ez duen fardela bizkar gainean hartzeko. Jaun-andreok, zaborra naiz, baina zabor amerikarra, eta oso harro nago. Eskerrik asko. Gabon. (*Flacori*) Zer moduz?

PAUL: Bikain egon zara, Boochie.

BOOCHIE: Badakit.

PAUL: Beste eskua libre banu, txalo egingo nizuke.

MAGGIE: Noren txanda da?

PAUL: Nirea.

FLACO: Ederra zeukeagu.

PAUL: Arazoren bat?

FLACO: Ez, ez, aurrera.

PAUL: Oso ondo.

FLACO: Baina hobe duk zerbait zentzuzkoa esatea; bestela, sayonara, marikoi zikina.

PAUL: “Zergatik sufrituko luke gizarteak nire heriotzarekin” Paul Abraham Handleman-ek sinatua.

FLACO: Jodeeer...

PAUL: Ba, sufrituko likek nik, hik ez bezala, lan egiten dudalako gizartearen alde. Dozenatik gora autolaguntza-talderen tutorea nauk. Haurrekin lan egiten diat. Eta jubilatuekin. Bizilagunei “kaixo” esaten zieat. Laguntza eskaintzen zieat kleptomano anonimoei. Batzuetan tentazioan erortzen naizela? Ba, bai. Baina berehala altxatzen nauk, gauzak axola zaizkidalako, eta jendea. Ez zidak beldurrik ematen aitortzeak pertsona zintzoa naizela eta kezkatzen naizela besteengatik. Finito.

FLACO: Bukatu al duk?

PAUL: Bai.

FLACO: A ze erretolika bota digun moja santujale amorratu honek! Kaixo, kleptomanotxo maitetxo, laguntzatxorik nahi?

PAUL: Hire txandatxoa. Hobetuzak ahal baduk.

FLACO: Entzun, ikusi eta ikasi, babalore. (*Bi salto aurrera. Bi salto atzera*) Tira, ba... (*Publikoari*) Flaco izena dut. Lapurra naiz, eta trapitxeroa. Erre egiten dut. Erre eta edan, esnifatu, ziztatu eta aukera izanez gero, harrapatu. Neurekoia naiz eta gaiztoa baino gaiztoagoa. Eta hemen nago, bizirik... Hemen nago, zutik — bueno eserita, baina zutik banengo bezala—, inork sekula kendu ez didan nire altxor preziatuarekin: nire indarra, nire indar neurrigabea zainetatik dabilkidala. Gaztea naiz, ederra, bizkorra eta karismatikoa. (*Pauli*) Nik karisma handia zeukaat, motel! Liderra izateko jaioa nauk. (*Publikoari*) Horrenbesteko indarra daukat barruan, erraz iritsi naiteke alkate izatera ere. Ze, alkate?

Gobernadore! Zer diot nik gobernadore? Presidente! Bai. Zergatik ez naizen oraindik presidente? Ba, apala naizelako. Baina gutxien uste denean, hauteskundeetara aurkeztu, irabazi eta hor hasiko naiz planeta puta hau salbatzen. Ze gure planeta hau zain dago zeinek salbatuko, hori begi-bistakoa da. Orain arte ez dudala gauza handirik egin besteen alde? Egia. Inork ez duela ezer berezirik ikusten nigan? Ze ikusten zion jendeak berezia Jesukristori? Hogeita hamahiru urte bete bitartean, sistemaren kontrako militante anonimo arrunta izan zen, anti-inperialista, komunista, naturista eta putazalea. Alegia, tipo normal-normala. Eta hogeita hamahiru urte bete zituenean, bat-batean, plast!, Jainko bihurtu. (*Pauli*) Nire momentua hurbiltzen ari duk, mutiko. (*Publikoari*) Ni orain hilko banintz, munduak bere hurrengo Elche Guevara galduko luke, bere hurrengo Martin Latin King. Barkaezina litzateke munduak halako galera izugarria jasan behar izatea, ez duzue uste?! Orain, adiskideok, zuen kontzientziak erabaki dezala. Finito. Koniek. The End.

BOOCHIE: Ai, Flaco. Hain inspiragarritzailea izan da!

FLACO: Baietz, nire urdangatxo maitea?

BOOCHIE: Izugarri gustatzen zait serio jartzen zarenean. Zu zara nire Latin King.

FLACO: Beti, beti. (*Etenaldia.*) Hurrengoa.

PAUL: Denbora gehiago behar duzu hasi aurretik, Maggie?

MAGGIE: Ez dut gogoko neure buruaz hitz egitea.

PAUL: Maggie, izaki zoragarria zara. Hainbeste arrazoi dauzka gizarteak zu ez galtzeko.

MAGGIE: Adibidez?

BOOCHIE: Ez esan! Hori tranpa da!

MAGGIE: Zer gertatuko da ni bizirik ateratzen banaiz eta zuetako bat hilik? Errudun sentituko naiz. Eta zer gertatuko da ni bizirik atera eta deprimituta eta zoritxarreko izaten jarraitzen badut eta egunen batean nire buruaz beste egitea erabakitzen badut? Ba, ez naizela gauza izango. Ze, horrek esan nahiko du zuetako bat alferrik hil dela. Beraz, ni hiltzea izango da onena. Eta hala ardura bakarra izango dut: neure heriotza, eta ez beste inorena. Kito. Finito. The End.

BOOCHIE: Ze polita!

FLACO: (*Maggieri*) Badakit ez naizela izan munduko nobiorik onena, baina gauza bat badakit: zu oso pertsona handia zara, Maggie, oso handia.

BOOCHIE: Flaco, eta ni zer?

FLACO: Zuk ere oso gauza handiak dituzu, pitxurri.

MAGGIE: Ba, listo. Erabakita dago. Kito.

(*MUSIKA*) (*Argiak itzaltzen dira.*)

3. eszena

Lapur-zuloa. Egunsentia. Salek pistolarekin apuntatzen ditu Maggie, Flaco, Paul eta Boochie. Little Tuna sartzen da.

LITTLE TUNA: (*Aho-zabalka.*) Egun on! Ondo lo egin duzue? Pozten naiz. (*Salek kafea zerbitzatzen dio.*)

SAL: Zer moduz kafea, Lou?

LITTLE TUNA: Hortxe-hortxe. Erosi al dituk donusak?

SAL: Noski, Lou. Goian daude.

LITTLE TUNA: Zapore desberdinetakoak?

SAL: Jakina, Lou. Esan diot superreko morroiari: “Kaixo, superreko morroia, jar itzak klase bakoitzeko bina edo aitagurea errezatu, kabroia”.

LITTLE TUNA: Eta?

SAL: Klase bakoitzeko bina jarri dizkit.

LITTLE TUNA: Ikusten ze inportantea den elkarrizketa eta negoziazioa?

SAL: Bai, motel, erremedio santua.

LITTLE TUNA: Jaitsi donusak eta eskaini gure gonbidatuei.

SAL: Lou, donus horiek garestiak dira.

LITTLE TUNA: Bai, baina gure lagunak gosetuta zeudek.

SAL: Hain zuzen ere: tiro egin eta akabo gosea.

LITTLE TUNA: Sal?! Goizean goizetik hasi behar al diagu sesioan?

SAL: Ez, ez, nik bakarrik esan...

LITTLE TUNA: Ekar itzak donus madarikatu horiek oraintxe! (*Sal irten egiten da.*) Porco dio, hau da hau astakirtena! Adiskide maiteok... Mingarria zait oso orain egingo dudana egin behar izatea. Izan ere, bide onetik jakin dut txoriburu-koadrila bat baino ez zaretela. Paul eta Maggie, erdiko klasearen jipi aspergarri tipikoak zarete: Toblerone bat lapurtzea sekulako abentura da zuentzat. Boochie eta Flaco... zuek... zer nahi duzue esatea? Zuen delinkuentzi estiloa modaz pasata dago.

BOOCHIE: Modaz pasata, zergatik?

LITTLE TUNA: Behin bururatu lapurtzea eta bi aldiz atxilotu zaituztete.

FLACO: Edozeinek dauka bolada txar bat.

LITTLE TUNA: Noski, motel. Bat, bi eta hiru. Baina hire bolada txarrak 45 urte iraun dik, uztea pentsatu behar huke agian. Ez duk uste, Flaco?

MAGGIE: Flaco eta pentsatzea bateraezinak dira.

LITTLE TUNA: Hori da hitz egitea! Neska hau zoragarria da. Maggie, igerian ibili naiz Interneten eta institutu garaiko zure notak aurkitu ditut.

MAGGIE: Zer?

LITTLE TUNA: “Bikain” pila bat, pixkanaka-pixkanaka “nahiko” bilakatu zirenak eta gero kalabaza-mordo bat. Gauza arrotz ugari sartu baitziren zure bizitzan: marihuana, tipo gihartsuak eta frantses existentzialismoa.

BOOCHIE: Zer da hori?

FLACO: Gazta-klaseren bat. Ixo!

LITTLE TUNA: Bedeinkatua izan dadila frantses existentzialismoa. Existentzialismorik gabe zu bezalako aberaskume supermegacool bat ez zen sekula santan maiteminduko ni bezalako gaizkile supermegaarriskutsu batekin.

MAGGIE: Zer diozu? Ni ez nago zurekin maiteminduta.

LITTLE TUNA: (*Barrea*) Emakume liluragarria, benetan: ez daki gezurrik esaten.

SAL: Donus samur-samurrak, nagusi. Beren zulo eta guzti.

LITTLE TUNA: Ekartzak erretilua eta deskantsatu pixka bat. (*Pauli*) Donus bat?

PAUL: Ez, ez zaizkit gustatzen donusak.

LITTLE TUNA: (*Maggieri*) Donus bat?

MAGGIE: Ez, eskerrik asko.

LITTLE TUNA: (*Boochieri*) Donus bat, polita?

BOOCHIE: Nahiago dut beste zerbait.

LITTLE TUNA: Adibidez?

BOOCHIE: Zerbait “espainola”.

LITTLE TUNA: Espainola? Paella bat, esate baterako?

BOOCHIE: Ez. Txurro bat, esate baterako... Zure txurroa nahi dut, Tuna jauna.

LITTLE TUNA: Nire “txurroa”? Begira, urdangatxo maitea, ahaztu nire txurroa. Nire txurroa konpromisoa hartuta dago beste txurri batekin.

BOOCHIE: Baina, ze ikusten diozue neska honi? Esango didazue ze arraio ikusten diozuen denok neska honi?

LITTLE TUNA: (*Flacori*) Hi, harroxko, donusik nahi?

FLACO: Bale! (*Flacok donusak usnatzen ditu.*)

LITTLE TUNA: Ze habil?!

FLACO: Kremazko baten bila.

LITTLE TUNA: Hau da zerria! Sal, botaiok tiroa! (*Salek tiro egiten dio. Ez du asmatzen.*) Hi burutik jota hago! Txantxetan ari ninduan, motel!

SAL: Barkatu, Lou.

LITTLE TUNA: Sal, hoa bueltatxo bat ematera.

SAL: Nora?

LITTLE TUNA: Zer moduz munduari bira ematera? (*Sal burumakur irteten da.*) (*Flacori*) Begira, motel, sentitzen diat, baina ez zaidak batere gustatzen jendeak sudurra modu horretan sartzea nire donusetan. Tori, hartzak hau. (*Ahoan sartzen dio, indarrez.*)

FLACO: Eskerrik asko, Tuna jauna...

LITTLE TUNA: Maggie, seguru ez duzula nahi kremaz eta txokolatez betetako hau?

MAGGIE: Bueno.

PAUL: Umm, Maggie?

MAGGIE: Zer?

PAUL: Ez duzu hori jango, ezta?

MAGGIE: Bai, ze ba?

PAUL: Azukre hutsa da, Maggie. Ezin duzu ezta ukitu ere egin.

LITTLE TUNA: Hi, isildu hadi! (*Maggieri.*) Jantzazu, polita.

MAGGIE: Sentitzen dut, Lou. Ezin dut jan.

LITTLE TUNA: Zergatik ez?

PAUL: Maggie jatun konpultsiboa da.

LITTLE TUNA: Zer dela?

PAUL: Bere oinazea ezkutatzeko jaten du... Tuna jauna, ez zaitut iraindu nahi, baina egia esan, zuk ere jatun konpultsiboaren itxura duzu.

LITTLE TUNA: Potolo deitu didak?

PAUL: Ezta pentsatu ere. Baina zuk oinazea ezkutatzeko jaten duzu. Ez gaituzu hil nahi. Horrek oinazea eragiten dizu, eta orduan jan egiten duzu...

LITTLE TUNA: Koldarra deitu didak?

PAUL: Ez. Jatun konpultsiboa.

FLACO: Tuna jauna, ez egin kasurik memelo horri. Zu ezin ausartagoa zara eta argal-argala. Marlon Brando ematen duzu-ta. Gazte-garaian, noski.

PAUL: Ikusten, Tuna jauna? Jaten ari zara! Oinazea lurperatzen ari zara!

LITTLE TUNA: Hi bai lurperatuko haudala...

PAUL: Utzi donus hori!

LITTLE TUNA: Zer?!

PAUL: Ez duzu jan nahi.

LITTLE TUNA: Zergatik ez?

PAUL: Donusak ezin ditu konpondu arazo espiritualak.

LITTLE TUNA: A, ez? Baina pistolak konpontzen ditik arazo desatseginak. Sal, emaidak pistola. Akabatu egingo diat-eta hau oraintxe bertan. Non arraio sartu da babo hori?

BOOCHIE: Munduari bira ematera bidali duzu.

PAUL: Tuna jauna, hil nazazu nahi baduzu, baina horrek ez dizu arazoa konponduko. Arazo bat konpontzeko lehen urratsa arazoa onartzea da. Zu jatun konpultsiboa zara, Little jauna. Hori da egia objektiboa.

LITTLE TUNA: Ni ez nauk jatun konpultsiboa!

PAUL: Tuna jauna, ni ere jatun konpultsiboa naiz. Eta zuk sintoma guztiak daukazu.

LITTLE TUNA: Hi jatun konpultsiboa haiz?

PAUL: Bai. Nahi dituzu ikusi Egiptoko nire argazkiak?

LITTLE TUNA: Ez. Orduan, ez duk donusik jaten?

PAUL: 994 egun daramatzat donusik jan gabe.

LITTLE TUNA: Eta zer gertatuko litzateke orain donus bat jango bahu?

PAUL: Ezer ez, ez baitut jango.

LITTLE TUNA: Ya, baina jango bahu?

PAUL: Ba, oso pasadizo mingarria litzateke.

LITTLE TUNA: A, bai? Zer dela eta?

PAUL: Begira, ze iruditzen jatun konpultsiboen batzar batera baldin bagoaz guztiok? Pila bat ikasiko dugu.

BOOCHIE: Ni prest!

FLACO: Baita ni ere!

LITTLE TUNA: Ba, ni ez. Nik askoz ere ideia hobea daukat. (*Pauli*) Jantzak donus bat oraintxe bertan.

PAUL: Ezin dut.

LITTLE TUNA: Jantzak edo tiro egingo diat.

PAUL: Zuk? Zu ez zara gai tiro egiteko. Zu ogi-puska bat zara.

LITTLE TUNA: Sal...

PAUL: Txokolatego bat hartuko dut.

LITTLE TUNA: Jantzak erretilu osoa! Eta amaitzen ez baduk, hanburgesa bat egingo diat hire barrabilekin. Aupa, animatzen ari naiz. Nor hilko da gaur?

MAGGIE: Ni.

LITTLE TUNA: Zu? Ezinezkoa. Zu ez. Zergatik zu?

MAGGIE: Hala erabaki dudalako.

LITTLE TUNA: Ez duzu iritzia aldatu nahi? Seguru? Beste bat hilko dut. Konpultsiboa, adibidez. Edo urdangatxoa. Edo zerria.

FLACO: Egintzazu egin beharrekoa, jatun konpultsibo potolo zikina.

LITTLE TUNA: Pentsa ezazu hobeto, laztana.

MAGGIE: Pentsatuta daukat.

LITTLE TUNA: Baina, Maggie, zuk inspiratu egiten nauzu, txoratu. Izugarri atsegin zaitut. (*Sali*) Ezin diat hil.

SAL: (*Sartuz*) Neuk egingo dut. Ez zait batere kostatzen.

LITTLE TUNA: Bazekiat, Sal. Baina, hala ere... arraro egiten zaidak.

PAUL: Ideia bat daukat. Zergatik ez diguzu joaten uzten? Jatun konpultsiboa izatea ez da basapiztia izatea. Zuk kontzientzia daukazu. (*Little Tunak arrastaka eramaten du.*)

LITTLE TUNA: Hik jantzak, eta ixo!

PAUL: Oraintxe duzu aukera sendabidearen lehen urratsa emateko. (*Little Tunak keinua egiten dio Sali*) Laguntza-taldeak daude zu bezalako jendearentzat. Badakizu? Ostegunetako nire terapia-taldean badago tipo bat “Cosa Nostra”koa. “La familia e molto inportante.”

SAL: Lou, mesedez, utzidazu akatzen!! Zerbait akatzeko premia daukat.

PAUL: Ez zara zure burua onartzen ari, Tuna jauna.

LITTLE TUNA: Maggie garbitzen dugunean, labankadaz josiko haut! Behin eta berriro! Kamera geldoan. Txas! Txas!

FLACO: Tuna jauna, beste ideia bat daukat: Etzazu Maggie hil. Eman kremazko bat, eta hil nazazu ni.

BOOCHIE: Baina, Flaco, zergatik? Bera prest dago.

FLACO: Sentitzen dut, polita, baina nire momentua iritsi da.

LITTLE TUNA: Ez. Maggieren nahia errespetatuko diagu.

FLACO: Bale.

LITTLE TUNA: (*Musua ematen dio Maggieri*) Sal... (*Salek pistola ateratzen du.*)

(*Salek Maggie aurreratzen du pixka bat.*)

(*Bat-batean atea zabaldu eta Alfontsa sartzen da, “Tuna Arrantzale Handia”, ekipajea eskuan duela.*)

BIG TUNA: Geldi hor!!! Jarriok isilgailua pistolari, kriston buruko mina zeukaat-eta.

SAL: Oraintxe, izeba Alfon.

BIG TUNA: Koldo!

LITTLE TUNA: Kaixo, mamma.

BIG TUNA: Jakin al liteke zein arraioren diren hauek?

LITTLE TUNA: Hauek? Ba, hauek dira... diskotekakoak, mamma.

MAGGIE: ”Koldo”?

BIG TUNA: Hauek? Txatxu-aurpegi horiekin? Eta zergatik ez dituk garbitu oraindik? Joder, ezin haut bakarrik utzi asteburu bakar batean ere.

LITTLE TUNA: Sentitzen dut, mamma.

BIG TUNA: Hator hona, Koldo.

LITTLE TUNA: Zertara, mamma?

BIG TUNA: Etortzeko esan diat!! Bat, bi, hiru. (*Sekulako muturrekoa ematen dio.*)

LITTLE TUNA: Aaai!

BIG TUNA: Zenbat aldiz esan behar diat nire aurrean ez hitz egiteko italianoz?

LITTLE TUNA: Sentitzen dut, mamma... (*Muturrekoa.*) Ama.

BIG TUNA: Hori hobeto zegok. Ekarri kafe bat.

SAL: Isilgailua, prest!

BIG TUNA: Oso ondo, Xalbador. Egon hadi zain.

FLACO: Ze izen-klase da Koldo?

PAUL: Europaren ekialdekoa, Balkanetakoa, edo Bosniakoa agian.

SAL: Tiro egingo diot, izeba?

BIG TUNA: Jakina. (*Arma prestatzen du.*) Baina esplikaiook aurrena.

SAL: Ondo. Ba, begira, tiro egitea duk nik kanoia garondoan jarri eta gatilua sakatzea, eta orduan garunak frijituko ditiat. (*Katua jasotzen dio armari.*) Begira...

BIG TUNA: Tiroarena ez, motel, izenarena!

SAL: Ze izen?

LITTLE TUNA: Ama, nik esplikatuko diot, Sal estresatuta dago-eta. (*Pauli*) Ba, begira, Koldo izen euskalduna duk. Eta euskaldunak dituk, ba... Nola esplikatu garbi uler dezaan. Iberiar penintsularen iparraldean, bazegok talde txiki bat abertzale ausartez eratua, eta borrokan zebilek terrorismo internazionalaren inbasioen aurka oso aspalditik. Aurrena, erromatarrak izan zituan; eta beren kultura, garapen eta zibilizazio nazkagarritz bete zizkigutean gure kobazulo ederrak. Gero, frankoak saiatu zituan. Baina ez “arriba España!” diotenak, baizik eta Espainiaren gainean bizi diren frankoak, alegia frantsesak. Gero, gotikoak etorri zituan. Ondoren, bisigotikoak. Gero, islamiar erradikalak, Errege “Alkoholikoak”, eta amaitzeko Aznar. Ba, inbasio guztiei aurre egin izan dien abertzale-talde txiki horri euskalduna deitzen zaiok.

BIG TUNA: (*Hunkiturik. Txaloak*) Bai jauna! Hauxe da gure Koldo! Hator hona! (*Musua*)

LITTLE TUNA: Eskerrik asko, ama. Nahi duzu donus bat?

BIG TUNA: Ez, seme, eskerrik asko. Kokaina-mordo bat esnifatu diat kargamentua erostean (*bi poltsak seinalatzen ditu*), eta uste diat

ez naizela gosetuko bizitza osoan. Baina oinetan masajetxo bat gustura hartuko nitek.

MAGGIE: (*Big Tunari*) Ez dut ulertzen. Euskalduna baldin bada... Zergatik hitz egiten du italieraz?

BIG TUNA: Bi arrazoiengatik. A, lehenengo arrazoia.: herrialde honetan euskaldunok artzain-titulu hutsa daukagu. Eta New Yorkeko kaietan burutik behera kaka egingo ligukete. Bigarren arrazoia, B: gixajo honi izugarri gustatzen zaio makarronirena egitea.

PAUL: Egia esan, primeran egiten du.

FLACO: Kokaina dago poltsa horietan?

BIG TUNA: Bai, 120 kilo farlopa, kategoriakoa.

FLACO: 120 kilo? Bai zera!

BIG TUNA: Koldo, hartu poltsa horiek eta igo nire gelara.

LITTLE TUNA: Bai, ama... (*Little Tunak ezin ditu altxatu lurretik*) Hobe gerorako uztea.

FLACO: Bale, kristona pisatzen dute. Baina nola jakin farlopa dela probatu gabe?

SAL: Nahi baduzu, proba dezala nire piparen kanoia.

BIG TUNA: Ba, ez, ez diat nahi. Ze ibili zarete, parrandan ni joan nintzenetik, ala?

LITTLE TUNA: Ez, ama.

BIG TUNA: Xalbador! Hik zaindu behar huen hau dena, ezta?

SAL: Bai, baina munduari biratxo bat ematera bidali nautenez...

BIG TUNA: Ez hintzen hipodromora joango asteburuan... Ze, Joey Dortokak esan zidak han ikusi hauela.

SAL: Dortokak gezurra esan dizu! Izeba Alfon, jokoa erabat utzita daukat, benetan.

BIG TUNA: Nola litekek sekulako asteburu gogorra eman ondoren etxera bueltatu eta nire sotoa jendez gainezka topatzea? Atzo hil behar zenituzten hauek guztiak eta lausti bi kristi!

SAL: Louk, Koldok ez du inor hil nahi marikoi koñorde konpultsiboa delako! (*Abaildurik.*)

BIG TUNA: Koldo, huts egin didak. Eramantzak jende hau kanpora eta akabatu. Eta itzultzen haizenean, hik eta nik patxadaz hitz egingo diagu.

LITTLE TUNA: Ama, ezin dut.

BIG TUNA: Zergatik ez?

LITTLE TUNA: Esan nien bat bakarrik hilko nuela.

BIG TUNA: Ba, akabatu bat, eta Xalbadorrek garbi ditzala besteak.

SAL: Horixe.

LITTLE TUNA: Ezin dut: tratua egina daukat haiekin.

BIG TUNA: Tratua egina?

LITTLE TUNA: Bai ba.

BIG TUNA: Ze, hiru bizirik utzi eta bat hiltzea?

LITTLE TUNA: Ba, bai.

BIG TUNA: Eta hik zer jasoko duk trukean?

LITTLE TUNA: Ez naiz gogoratzen.

BIG TUNA: Txatxu samarra hire tratu hori, ezta?

LITTLE TUNA: Ez dago modurik ondradua izateko? Zergatik atera behar da beti etekinen bat?

BIG TUNA: Joder! Orain amerikarrak garelako, seme. Hemen edo aberatsa haiz edo kaka hutsa haiz.

PAUL: Tuna Handia andrea, bakarrean hitz egin dezakegu?

BIG TUNA: Xalbador, ekarri. *(Salek Paul hurbiltzen dio Big Tunari)*
(Pauli) Bota.

PAUL: Bakarrean.

BIG TUNA: Xal, txokora.

PAUL: Paul Abraham Handleman izena dut, eta esan nahi dizut harro egon behar duzula zure semeaz. Erruki- eta maitasun-haziak ditu barruan. Zoriondu behar zenuke, eta ez errieta egin.

BIG TUNA: Hik ze izen esan duk?

PAUL: Handleman.

BIG TUNA: Behin ezagutu nian Gentleman izeneko bat. Maury Gentleman.

PAUL: Bai! Bai! Nire aitona.

BIG TUNA: Aitona? Ez duk harritzekoa. Hura ere sermolari amorratua zuan, hi bezala. Beti esaten zidaan diru gehiago eman behar nuela "karitaterako". *(Sali)* Karitaterako, nik?! *(Barreak)* Ederra elementua! Aizak, bizirik al dago tipo xelebre hori oraindik?

PAUL: Bai. Sarraila-denda dauka Manhattanen.

BIG TUNA: Primeran. Bisita egingo zioat egun hauetako batean.

PAUL: Izugarri poztuko da.

BIG TUNA: Seguru. Bueno, bainu bat hartu behar diat. Xalbador, kanpora eraman hauek denak eta akabatu!

LITTLE TUNA: Hi, geldi hor, Sal! Ama, ezin duzu hil jende hau.

BIG TUNA: Zergatik ez?

LITTLE TUNA: Pertsona zintzoak dira.

BIG TUNA: Seme, bazekiat zer pentsatzen ari haizen, eta txalogarria duk. Baina pertsona zintzoak egunero hiltzen dituk. Ez zekiagu zergatik, baina hala duk. Jaungoikoaren nahia.

LITTLE TUNA: Baina, ama, zergatik ez diegu barkatzen eta listo?

BIG TUNA: Barkatu? Zer esan nahi duk horrekin?

LITTLE TUNA: Ba, barkatu. Bai, nik etxea erre nuen hartan bezala, edo eskolako zuzendaria bahitu nuenean...

BIG TUNA: Hura txorakeria izan zuan. Hik ez hituen 500.000 dolar lapurtu.

FLACO: 500.000?

PAUL: Tuna andrea, zer esan duzu, 500.000 dolar lapurtu dizkizugula?

FLACO: Eta non daude gainerako 250.000 dolarrak?

BIG TUNA: Et, et, et. Zertaz ari haiz?

PAUL: Kutxan 750.000 dolar zeuden. Nik zabaldu nuen. Neronek kontatu nituen!

BIG TUNA: Itxoin pixka bat! Xalbador, hik ez al huen esan 500.000 dolar zeudela?

SAL: Hala zeudelako, izeba. Tipo honek ez daki kontatzen.

PAUL: Tuna Handia andrea, 750.000 dolar zeuden. Zin egiten dizut. Kontatu egin nituen. Eta Maggieri erakutsi nizkion.

BIG TUNA: Nor da Maggie?

BOOCHIE: Hau, dantzaldiko erregina.

LITTLE TUNA: Maggie, zenbat diru zegoen kutxa gotorrean?

MAGGIE: 750.000 dolar. (*Tuna Handiak pistola ateratzen du.*)

BIG TUNA: Nora hoa, Xalbador?

SAL: Katuari jaten ematera, izeba.

BIG TUNA: Ez zeukaagu-ta katurik.

SAL: A, ez?

BIG TUNA: Geldi hor! Altxa eskuak! Seme, igo gora eta begiratu Xalbadorren logelan.

LITTLE TUNA: Ondo, ama. (*Lou irten eta gora igotzen da.*)

SAL: Izeba Alfon, zin egiten dizut, Jainkoaren izenean...

BIG TUNA: Geldi hor! Ondo. Zer moduzko eguraldia izan duzue hemen?

BOOCHIE: Oso atsegina, Tuna andrea.

BIG TUNA: Eta zuk, ze izen daukazu?

BOOCHIE: Boochie.

BIG TUNA: Titi politak, Boochie.

BOOCHIE: Bai, ezta?

BIG TUNA: Zer, seme? Ezer aurkitu al duk?

LITTLE TUNA: 250.000 dolar eta Natxo Vidal.

SAL: Panpina ez da nirea, lagun batentzat da.

BIG TUNA: Hau duk nahigabea, Xalbador.

SAL: Badakit... Niretzat ere nahigabe handia da. Baina laguna laguna da.

BIG TUNA: Egia esan, ez zekiat hiri nola lagundu.

SAL: Izeba, jokalaria konpultsiboa naiz. (*Pauso batzuk ematen ditu Big Tuna aldera.*)

BIG TUNA: Geldi hor!

SAL: Uste dut ni ere hamabi urratseko terapia horren premian naizela: tipi-tapa, tipi-tapa.

BIG TUNA: Hala uste diat nik ere. Prest hago lehen urratsa emateko?

SAL: Noski, izena Alfon.

BIG TUNA: Lehen urratsa. (*Salek pauso bat ematen du.*) Hartu maleta horiek eta eraman nire gelara.

SAL: Noski, izeba Alfon. (*Salek maletak ateratzen ditu txingak balira bezala.*)

BIG TUNA: Tira... Ba, dirudienez, diru asko aurreztu dut zuei esker. Beraz, mesedea egingo dizuet: emadazue atzamar lodi bana, eta akabo auzia. Jode, hau da gosea derrepentean.

LITTLE TUNA: Ama, ez zaitetz zekena izan. Jende honi esker 250.000 dolar irabazi ditugu, ez genekien-eta gureak zirela. Ahaztu atzamar lodiak. Gainera, nazkatuta nago atzamar lodiak mozteaz. Zenbat atzamar lodi moztu ditugu? 2.000? 4.000? Joder,

amerikarrak gara, bai; baina ez peto-petoak. Hara, tratu bat proposatuko dizut: nik ez dizut italieraz hitz egingo, eta zuk ez duzu atzamar lodirik moztuko.

(Bi segundoko etenaldi dramatikoa. Sal sartzen da eszenan.)

SAL: Maletak zure gelan. Bigarren urratsa?

BIG TUNA: Bigarren urratsa. Hator nirekin pixka bat. *(Sorbaldatik hartu eta kanpora ateratzen du. Tiro-hotsa entzuten da off-ean. Bi segundo geroago Big Tuna sartzen da eszenan.)* Kito, sendatuta. *(Little Tunari)* Aska itzak eta aire guztiok.

BIG TUNA: *(Donusak seinalatuz)* Nahi al duk, seme?

LITTLE TUNA: Ez, ezin dut. Jatun konpultsiboa naiz.

BIG TUNA: Zer haizela?

LITTLE TUNA: Ama, jaten dut oinazea ezkutatzeko.

BIG TUNA: Ze oinaze?

LITTLE TUNA: Oinaze handia daukat, ama. Ikaragarritzko oinazea.

BIG TUNA: Andregaiak jo egin hau berriro!

LITTLE TUNA: Beste oinaze-mota bat da, ama.

BIG TUNA: Hator hona. Eseri.

PAUL: Barkatu, eta ni?

BIG TUNA: Hi, geldi hor! Zer duk, seme?

LITTLE TUNA: Uste dut... ez dudala horrela jarraitu nahi. Ez nago honetarako eginda. *(Flaco maletetara hurbiltzen da.)* Ama, begira hori.

BIG TUNA: *(Flacori)* E!

LITTLE TUNA: Eta barkatu esatea, ama, baina zu ere jatun konpultsiboa zara.

BIG TUNA: Nork esan dik txorakeria hori?

LITTLE TUNA: Hauek. Errehabilitazio-programa batean dabilta.

FLACO: Nik ez dut sinisten errehabilitazio kaka horretan. Estatuaren konspirazioa da, gu denok ahultzeko.

BIG TUNA: Ikusten? Hona hemen gizon zentzuduna!

FLACO: Baina Maggie nire neska da.

MAGGIE: Hori gezurra da!

FLACO: Bueno, nire neska ohia. Baina nik maiteminduta jarraitzen dut, Tuna andrea. Eta prest nago berriro saiatzeko.

MAGGIE: A, bai?

FLACO: Legezko lanbideren bat hartuko dut. Apustu-artekaria izango naiz.

BIG TUNA: Prest hago bizimodua aldatzeko emakume horrengatik?

FLACO: Ni emakume honengatik prest nago edozertarako.

BIG TUNA: Ez nauk harritzen. (*Louri.*) Orduan, seme, hik ere utzi egin nahi duk bizimodu hau?

LITTLE TUNA: Bai, ama, utzi egin nahi dut. Eta asmoa daukat batzar batera joateko Maggierekin. Joan naiteke?

BIG TUNA: Egintzak egin beharrekoa, seme.

PAUL: (*Lotuta jarraitzen du*) Eta ni?

BIG TUNA: Gaur eguneko gazteok harritu egiten nauzue zuen arazoekin. Zer uste duzue, guk ez genuela arazorik gazte-denboran, ala?

LITTLE TUNA: Bai, ama.

BIG TUNA: Hik ez daukak ideiarik ere. Hire arazoak tontakeria hutsa dituk nik hire adinean nituenekin konparatuta. Ni, hire adinean, goizeko lauretan jaiki eta titia ematen nian. Gero, marmitakoa prestatu familia osoarentzat eta txitxarroak deskargatzen nitian aitaren barkutik: toneladak eta toneladak. Txitxarro-kaxak kamioian kargatu eta Pasaiako lonjaraino gidatzen nian kamioia. Han txitxarroa deskargatu, saldu eta kontrabandoko whiskia erosten nian. Gero whiskia kamioian kargatu eta Oriora berriro. Eta hori dena eguerdia baino lehen. Eguerdian, berriz, hiri titia eman, bi koilarakada marmitako hartu korrika eta presaka, eta Merkataritza Eskolara joaten ninduan. Eskolatik irtetea, hire osaba Markosen jatetxera joan eta bisiguak erretzen nitian gaueko hamarrak arte. Gero, etxera bueltatu, hiri titia eman, beste bi koilarakada marmitako hartu, harrikoa egin eta gainera Txanogorritxoren ipuina kontatzen nian. Ordu t´erdiko lokumutsa egin eta berriro ekiten nioan egunari. Egun batean esan nioan hire aitona Joxeri: “Hau gehiegizkoa da, aita. Erabat goibelduta nabil. Bizitza kale egiten ari zait”. Eta badakik zer esan zidan hire aitona Joxek?

LITTLE TUNA: Kontatu, kontatu.

BIG TUNA: Bizitza alkatxofa baten antzekoa dun: zati gozoa hartu eta gainerakoa bota egin behar dun”.

PAUL: Ez zaitut mindu nahi, Tuna andrea. Baina bizitza ez da alkatxofa baten antzekoa.

MAGGIE: Paul...

PAUL: Eta halakoa balitz ere, jendea ez da gai esperientzia txarrak ahazteko. Horregatik dago herrialde honetan hainbeste tratu txar eta adikzio. Aitona Joxe bezalako kabroiek esaten digutelako ez dugula obsesionatu behar gauza txarrekin. Amerika aitona Joxe bezalako ergelek fundatu zuten, eta horrela doakigu.

FLACO: (*Maggieri, Pauli buruz.*) Baina nondik atera duzu “antipatriota” hau, Maggie?

BIG TUNA: Seme, eraman itzak hire lagun berriak gosaltzera.

LITTLE TUNA: Oso ondo, ama.

BIG TUNA: (*Pauli.*) Eeeee! Jeiperman, ez! (*Denei.*) Jeipermanek eta nik solasaldi txiki bat egin behar diagu.

BOOCHIE: Agur, Tuna Sexi andrea.

BIG TUNA: Niri agurrik ez, bildots polit hori. Hobe “gero arte” esaten badidazu.

BOOCHIE: Ze ba?

BIG TUNA: Gogoko dituzu diamanteak, larruak eta luxuzko bizimodua?

BOOCHIE: Izugarri. Eta zuk gogoko dituzu cunnilingusak?

BIG TUNA: Um... Zaindu mingain hori. Uste dut gu biok primeran moldatuko garela. Gero arte, polita. (*Zartakoa ipurdian. Flaco, Maggie, Boochie eta Little Tuna kanpora doaz.*)

PAUL: Tuna andrea, ez dakit esan dizudan, baina ni cunnilingusen erregea naiz.

BIG TUNA: Lehen urratsa: ...

PAUL: Ai, ama!

BIG TUNA: Onartu behar dugu ez garela gai adikzioari aurre egiteko... Ez garela gai gure bizitza kontrolatzeko. Bigarren urratsa:...

PAUL: Programa egiten ari zara, ala?

BIG TUNA: Duela hogeitun urtetik hona.

PAUL: Kokainomanoa?

BIG TUNA: Alkoholikoa.

PAUL: Banengoen ba ni.

BIG TUNA: Ixo! Dirua lapurtu didak eta barregarri utzi nauk semearen aurrean. Hire ustez, zer egin behar genuke hori konpontzeko?

PAUL: Zerbait eman ordainetan.

BIG TUNA: Bai jauna. Begira, Jeiperman, bazeukaat artaldetxo bat Minesotan...

PAUL: Ez dakizu zenbat pozten naizen.

BIG TUNA: 800.000 mila ardi-buru, gutxi gorabehera.

PAUL: Jode, artaldetxoa.

BIG TUNA: Baina artzaina gaixotu egin zaidak. Eta ez zeukaat ardiei artilea zeinek mozturik.

PAUL: Nik? 800.000 ardi moztu?? Nik?

BIG TUNA: Bueno, zerbait eman beharko didak ordainetan, ezta?

PAUL: *(Atzamar lodia eskaintzen dio.)*

BIG TUNA: Orain, ospa hemendik Minesotara, eta amaitzen duanean, datorren mendean-edo, etorri berriro ni ikustera eta hitz egingo diagu.

PAUL: Baina, izeba Alfon...

BIG TUNA: Minesotara, Piterman. Minesotara!

PAUL: Bai, izeba Alfon. Eskerrik asko, izeba Alfon. Agur, izeba Alfon. *(Donus bat ahoan sartu eta irten egiten da.)*

AMAIERA